

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak arrakasta izan dezan hainbat jarduera egin beharko ditugu, hala nola, webgune esta aplikazioaren sorkuntza, bi hauen kontrola akatsik gabe merkatura atera ez dezagun, jendeak gure aplikazioa existitzen dela jakiteko publizitatea eta horrez gain, datuen administrazio bat beharko dugu. Gauza guzti hauek egin ahal izateko, Oier, Mikel, Naier eta Danel daude, Urruzti enoresaren fundatzaileak, laukote honek lehen aipatutako lanak egingo dituzte aplikazioa aurrer atera dezan.

Lehenik eta behin, aplikazioa eta webgune bat egin beharko dira, programazio zuzenarekin. hau lehenengo urratsa izango da, aplikaziorik gabe enpresa ezingo litzateke aurrera atera, jarduera hau pertsona batek egingo. Ezinbestekoa da programazioak akatsarik ez edukitzea, horretarako beste norbait egongo da, aplikazioa merkatura atera baino lehen eta eguneraketak atera baino lehen aplikazioa testatu egingo duena, pertsona honek azken baiezkua emango du merkatura atera baino lehen. Horrez gain, publizitatea ezinbestekoa da ere bai, horregatik pertsona bat egongo da horretaz arduratuko dena, pertsona honek iragarki erakargarriak egingo ditu eta sare sozialetan jarriko ditugu jendeak Mind Up existitzen dela jakin dezan. Azkenik, datuekin lan egingo duen pertsona bat ere beharko dugu, pertsona honek estadistikak egingo ditu eta administrazio lana izango du, lan horretan estadistikak egingo ditu, bileretan datuak erakutsiko dizkigu eta ondorioak adieraziko dizkigu.

Gestio zehatz bat jarraitu beharko dugu, hau da, aplikazioko datuak kontrolatu, erabiltzaileen kopurua, harpidetzeak, etab... Horretarako oso adi egon beharko gara edozein arazo, azkar eta ondo konpontzeko. Gauza horiei erreparatuz, aplikazioa ondo funtzionatzen duen edo ez jakin dezakegu eta horrela gaizki funtzionatzen duten gauzak hobetu ditzazkegu.

Oierrek aplikazioa eta webgunea sortuko ditu, teknologiarekin lan egitea gogoko baitu. Horrez gain, hainbat ikasketa ditu, unibertsitate mailan master bat du ingeneria informatiko karreran. Beraz, teoria ondo daki honelako proiektua aurrera atera ahal izateko. Gainera ez da bere lehen proiektua izango, aurretik lan egin baitu webguneak sortzen.

Mikel aplikazioa eta webgunea ondo funtzionatzen dutela zihurtatzeko testatzailea izango da, oso garrantzitsua baita akatsarik gabe ateratzea aplikazioa eta etorkizunean egingo ditugun eguneraketak. Oier bezala, ikasketak ditu gai honen inguruan eta horrez gain hainbat hitzalditan egon da, beraz lan hau egiteko oso aproposa da.

Publizitateari buruz Naier hainbat hitzalditan eta beste hainbat tailerretan egon da, beraz gaiari buruzko jakinduria badu. Hori dela eta, ikasi dituen abileziekin, iragarki erakargarriak egingo ditu TikTok, Instagram, Youtube eta halako sare sozialetan igoko direnak.

Azkenik, datuak aztertzeke, edozein motako datuak, diru sarrerak eta gastuak, erabiltzaile kopurua (zenbat erabiltzaile berri, zenbat erabiltzaile galdu) aztertzea

garrantzia da ere bai, aplikazioak datu positiboak edo negatiboak dituen aztertzeko. Danelek hau ikasi du unibertsitatean beraz, berak egingo du hau, urte batzuez ikasiz gero praktikan jartzeko aukera ona izango da.

Orain arte aipatutako guztiak oso garrantzitsuak eta funtsezkoak dira aplikazioaren proiektua aurrera ateratzeko, alde batetik, datuak aztertu behar dira, gure enpresaren norabidea jakiteko. Bestalde, webgune eta aplikazioaren funtzionamendu egokia edukitzea ere garrantzi handia du, horrela izango ez balitz, proiektua ezingo litzateke aurrera atera. Azkenik, publizitatea behar dugu jendeak Mind Up existitzen dela jakiteko.

